



EUSKAL  
GIZARTE  
ZIBILAREN  
LEHENGO TOPAKETA  
**LORTU  
NAHI  
DUGUN  
ETORKIZUNA**

*Planetan trantsizio justu eta jasangarri  
baterako bideari ekinez*

PRIMER ENCUENTRO  
SOCIEDAD  
CIVIL  
VASCA  
**EL  
FUTURO  
QUE  
QUEREMOS**

*Emprendiendo el camino hacia una  
transición justa y sostenible en el planeta*

**#EtorkizunaHorretanDoakigu**

**#NosVaElFuturoEnEllo**

Bilborock, 2024ko urtarrilaren 30a

09:00etaik 15:00etara

## Sarrera

Gizarte zibil antolatuaren zeregina funtsezkoa da gaur egun bizi dugun *polikrisi* globalaren testuinguruan. Euskadin, aurrerapausoak eman arren, bada **bizitzaren jasangarritasuna**rekiko eta **gizartearen polarizazio**rako joerarekiko kezka, lortutako eskubide sozialak arriskuan jartzen bai ditu. Horrenbestez, egoera halakoa izanik, agerian dago oso garrantzitsua dela **giza eskubideen balioak** indartzea eta **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda** ezartzeko bidean aurrera egitea, hori baita gizarte bidezkoagoa, berdintasunaren aldekoagoa eta iraunkorragoa lortzeko ekintza-esparrua.

Aldaketa horretarako, beharrezkoa izango da gizarte zibileko sektore desberdinen arteko elkarrizketa eta ekintza bateratua sustatzea, erronka konplexuei helduko dieten politikak eraikiz, eta herritarren parte-hartzea eta demokrazia sendoa sustatuz.

## Aurrekariak

2023. urtearen joanean, sektorearteko topaketak antolatu ditugu, hainbat erakunderekin lankidetzan (Nakusarbe, Sare Berdeak, Global Shapers Bilbao eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGK). Topaketa horiek emankorrak izan dira oso; izan ere, gogoetak, erronkak eta aukerak landu dira, eta baliagarriak izango dira giza eskubideak eta ingurumena errespetatuko dituzten politika inklusiboak eta feministak eraikitzen laguntzeko gizarte zibil antolatuak. Aurrez egindako topaketa hauen ondorioz, **Euskal Gizarte Zibilaren Topaketa interseksional** handi hau egingo da, non eremu desberdinetako erakundeak biltzea nahi dugu, topaketarako, hausnarketarako eta baterako eraikuntzarako gune bat sortzeko helburu nagusiarekin.

Orain arte, gaikako topaketa horietan 140 lagun inguruk hartu dute parte, ia denak gizarte zibileko mota askotako erakundeetakoak. Eskerrak eman nahi dizkiegu guzti-guztiei. Erakunde horiek zerrenda batean jaso ditugu (**eranskina**).

## Helburuak

Topaketaren helburua da **gogoeta egitea, elkarrekin hitz egitea, loturak estutzea eta zubiak sortzea** gizarte zibileko hainbat erakunderen artean, baterako narratibak eraikitzeko, eta, hala, planetan trantsizio justu eta jasangarri baterako bideari ekiteko.

Topaketa honen bidez, mezu hau helarazi nahi dugu: guztiok bat hartu eta lankidetzan arituz gero, garaiz gaude gure garaiko erronka handiei aurre egiteko, eta **nahi dugun etorkizuna eraikitzeko**.

Azpimarratu nahi dugu gizarte zibilak, aldaketa-eragile gisa antolatuta, lagundu dezakeela garapenerako politika inklusiboak, feministak, berdintasunezko demokraziak lortzekoak eta ingurumena zein giza eskubideak errespetatuko dituztenak eraikitzen.

## Egitaraua

8:30-9:00 Parte-hartzaileen erregistroa eta ongietorria

### HASIERA

9:00-9:30 Gizarte Zibil Antolatua: gizartean eta politika publikoetan aldaketarako motorra

- Arantza Acha, UN Etxearen zuzendaria
- Paula Fernández-Wulff, 2030 Agendako zuzendari orokorra, Gizarte Eskubide, Kontsumo eta Agenda 2030 Ministerioa
- Maria Fernández, Futuro en Común-en ordezkaria
- Rosaura del Val Izquierdo, GGKEen Departamentuko burua, AECID
- Asier Aranbarri, Berrikuntza Sozialaren zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

9.30-9.45 **INSPIRATU**

Amets egiteko eskubidea  
Cruz Noguera

9.45-10.30 **ULERTU**

Hiru paradigma-aldaketa bizirauteko  
Victor Viñuales, ECODES fundazioko zuzendaria

10:30 -11:00 Mikroaktibitatea

11:00-11:30 Atsedena (kafe-ordua)

11:45-13:00 **MOBILIZATU**

Eraldaketa sozialera eramango gaituen elkarrizketa

- Alberto Santolaria, Nakusarbe
- Hajar Samadi, Bidaya emakume musulmanen elkarte
- Elena Blanco, Sareen Sarea
- Laura Ruiz, Euskadiko GGKen Koordinakundea eta Economistas Sin Fronteras
- Jon Lejardi, Euskadiko Gazte Kontseilua
- Begoña Guzmán, UN Etxea

13:00-14:45 **PARTE HARTU**

Aldaketa sistemikorako proposamen politikoaren inguruko lana

14.15- 14.30 **BUKAERA**

14.30 **AMAIERAKO LUNTXA**



## Izena emateko inprimakia

<https://forms.gle/DUAUCWptfnQaVrts8>

## Hizkuntza

Aurkezpenak gaztelaniaz izango dira, programan bestelakorik adierazi ezean. Hala ere, euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko eskubidea bermatuko zaie hizlariei eta ikus-entzuleei.

### Antolatzaileak:



### Honako hauek diruz lagunduta:



### Honako hauen lankidetzarekin:





## ERANSKINA: PROZESUKO ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK:

A!Esan (Arrazakeriaren kontrako ikasle-elkartea)

Afrocolectiva

Agharas

Aloklub Academy

Astialdi Sarea

Berdeago

Bidaya elkatea

Cimasub

Clara Campoamor elkarte

Donibane Zentro Okupazionala

eCivis

Elkarrizketa Gazteekin / Diálogo con la Juventud

Elorrioko Auzo Koordinakundea

Emakumeak Aniztasunean elkarte

Emakumeak Zientzian

Emaús Fundación Social

Eraikiz kolektiboa

Europa Taldea / Equipo Europa

EUSGUA

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

Euskal Herriko Eskautak

Femme Shapers

Fridays For Future, Bilbo

Gaude fundazioa

Gazte Sarea, Alboan

Getxoko Immigranteen Plataforma

Global Shapers, Bilbo

Greenpeace

Ibilki

Koopera

Landa-eremuko emakumeak, Landa XXI elkarte

Lurgua fundazioa

Mater

Moviltik

Mujeres con Voz elkarte

Nakusarbe

Ola Sin Plástico (planetaren zaintzaren aldeko elkarte ekofeminista)

Pobreziaren aurkako borrokan Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko sarea

Professional Women's Network Bilbao

Sare Berdeak